

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), 2022ko apirilaren 9tik 22rako asteak.

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK: **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

2022/04/09

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, lanaren zuzendaritza nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren aseguru-entitateen, berraseguruen eta gizarte segurantzarekin lankidetzatza duten mutualitateen sektoreko estatuko hitzarmen kolektiboko 2022ko ordainsarien taulei eta kontzeptu ekonomikoei buruzko akordioa. **5831 xedapena - 6 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, lanaren zuzendaritza nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren azukre industriako hitzarmen kolektiboko 2022rako soldataren berrikuspenari eta ordainsarien taulei buruzko akordioak. **5832 xedapena - 5 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren oinetakoen industriako hitzarmen kolektiboko 2021erako berrikuspenari eta ordainsarien taulei buruzko akordioak. **5833 xedapena - 4 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren ontzeen, uhalen eta larru industrialen eta larrugintzako larrua ontzeko industrien Estatuko hitzarmen kolektiboko 2021eko ordainsari-taulei buruzko akordioak. **5834 xedapena - 3 or.**

2022/04/11

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren ikus-entzunezkoen produktoreen eta halakoetan aktore zerbitzuak ematen dituztenen arteko harremanak

arautzen dituen Estatuko III. hitzarmen kolektiboko 2022ko ordainsarien igoera onesten duen akordio partziala. **5957 xedapena - 4 or.**

- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Supersol Spain SLU, Cashdiplo SLU, eta Superdistribución Ceuta SLUren III. Hitzarmen kolektiboko 2022rako soldata berrikusteari buruzko akordioa. **5958 xedapena - 3 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Sinifo Instalaciones de Telecomunicaciones SLren hitzarmen kolektiboa. **5959 xedapena - 47 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Supercor SAre IV. hitzarmen kolektiboa. **5960 xedapena - 33 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. -Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den informazioko, harrerako, sarbideen kontroleko eta instalazioak egiaztatzeko laguntza-zerbitzuen enpresen estatuko hitzarmen kolektiboko 2022ko soldata-berrikuspena. **5961 xedapena - 3 or.**

2022/04/12

- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK. Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den erregimen orokorreko ikastetxe pribatuetako edo itunpeko mailarik gabeko edo dirulaguntzarik gabeko irakaskuntza arautuko XI. hitzarmen kolektibo nazionala. **6031 xedapena - 56 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/04/09

- ESTATUKO BURUZAGITZA. Hondakinak eta lurzoru kutsatuak. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. **5809 xedapena - 156 or.**
- GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 7koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila martxoaren 22ko 5/2022 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze-akordioa. Errege lege-dekretu horren bidez, egokitu egiten da jarduera artistikoetan dihardutenen lan-harremanen izaera bereziaren erregimena, bai eta

halakoak egiteko behar diren jarduera tekniko eta laguntzakoetan aritzen direnena ere, eta sektoreko laneko baldintzak hobetzen dira. **5810 xedapena - 1 or.**

- **BARNE MINISTERIOA.** - Mugak. INT/296/2022 Agindua, apirilaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **5812 xedapena - 2 or.**
- **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA MINISTERIOA.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Akats zuzenketa, honako errege dekretu honena: 217/2022 Errege Dekretua, martxoaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen. **5813 xedapena - 1 or.**

2022/04/13

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Zigor Kodea. 4/2022 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen den Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, haurdunaldia borondatez eteteko kliniketara joaten diren emakumeen aurkako jazarpena zehatzeko. **6044 xedapena - 3 or.**
- **BARNE MINISTERIOA.** Espetxeen erregelamendua. 268/2022 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Espetxeen Erregelamendua onesteko otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretua aldatzen duena. **6046 xedapena - 5 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.** Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Bulegoa. Estatutua. 271/2022 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen den "Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Bulegoa" Estatuko bulegoa sortzen duen eta haren Estatutua onesten duen irailaren 16ko 1275/2011 Errege Dekretua, haren antolamendu-egitura egokitzeko osasun-produktuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko apirilaren 5eko 2017/745 (EB) Erregelamenduaren aurreikuspenetara. **6049 xedapena - 6 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN MINISTERIOA.** Itsas ingurunea. 218/2022 Errege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den itsas estrategiei dagokienez bateragarritasun-txostena arautzen duen eta bateragarritasun-irizpideak ezartzen dituen otsailaren 22ko 79/2019 Errege Dekretua. **6050 xedapena - 22 or.**
- **ESPAINIAKO BANKUA.** Ordainpeko zerbitzuak. Akats-zuzenketa, honako zirkular honena: 2/2022 Zirkularra, martxoaren 15koa, Espainiako Bankuarena, ordainpeko zerbitzuen hornitzaileek eta ordainpeko zerbitzuen operadoreek Espainiako Bankuari ordainketen estatistikak bidaltzeko arauak buruzkoa. **6051 xedapena - 1 or.**

2022/04/20

- **OSASUN MINISTERIOA.** Osasun neurriak. 286/2022 Errege Dekretua, apirilaren 19koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeran zehar maskaren nahitaezko erabilera aldatzen duena. **6449 xedapena - 4 or.**

2022/04/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Genero indarkeria.** Akats-zuzenketa, honako lege organiko honena: 2/2022 Lege Organikoa, martxoaren 21ekoa, genero indarkeriaren biktima umezurtzen babesa hobetzeari buruzkoa. [6497 xedapena - 1 or.](#)
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Pentsioak.** Akats-zuzenketa, honako lege honena: 21/2021 Legea, abenduaren 28koa, pentsioen erosahalmena bermatzeari eta pentsioen sistema publikoaren finantza- eta gizarte-iraunkortasuna indartzeko beste neurri batzuei buruzkoa. [6498 xedapena - 1 or.](#)

2022/04/22

- **OSASUN SISTEMA NAZIONALA.** Ebazpena, 2022ko apirilaren 5koa, Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez eguneratzen diren goiko gorputz-adarren eta beheko gorputz-adarren kanpoko protesien, agenesietarako ortoprotesien, gurpildun-aulkien, ortesien eta linfedemaren terapiako produktuen sailkapenak, Osasun Sistema Nazionalak produktu ortoprotesikoen jakinarazpenak hartzeko sistema informatizaturako. [6579 xedapena - 28 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/04/11

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA. AGINDUA, 2022ko apirilaren 1ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez indarrik gabe uzten baita honako agindu hau: Agindua, 2021eko abenduaren 28koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen baitira.** [1598 xedapena - 2 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/04/13

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 5koa. Premiazko neurriak onestea, azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko. [934 xedapena - 3 or.](#)

2022/04/20

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 12koa. Onestea alda daitezela zerbitzu digital jakinen gaineko zerga eta finantza transakzioen gaineko zerga. [1002 xedapena - 3 or.](#)

2022/04/22

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZUZENDARIEN EBAZPENAK.** 1433/2022 Ebazpena, apirilaren 13koa, Ogasuneko zuzendariarena, Arabako Lurralde Historikoan Iruzuraren aurka Borrokatzeko 2022ko Plana hezurmamitzen duten irizpide orokorrak aditzera ematen dituen. [1018 xedapena - 16 or.](#)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/04/13

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 521/2022 FORU AGINDUA, apirilaren 4koa. Honen bidez onesten da landa-ondasun higiezin balioztatze automatizatueta aplikatu beharreko «K koefizientea», merkatuarekiko erreferentzia duen koefiziente modulatzaila. [I-330 xedapena - 1 or.](#)
- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Enkante-iragarkia, 23/2022. [I-331 xedapena - 3 or.](#)
- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 534/2022 FORU AGINDUA apirilaren 12koa; honen bidez, 2022ko apirilaren 29ra arte luzatzen da muga-eguna 2022ko apirilaren 25ean duten aitortenak eta autolikidazioak aurkezteko epea. [I-352 xedapena - 2 or.](#)
- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 42/2022 FORU DEKRETUA, apirilaren 5koa, Bizkaiko Hirigintza Batzordea onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 12ko 79/2009 Foru Dekretua indargabetzen duena. [I-336 xedapena - 1 or.](#)
- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEZKO SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 47/2022 FORU DEKRETUA, apirilaren 12koa, zeinaren bidez onartzen baitira abeltzaintza eta nekazaritza sektorea babesteko ezohiko laguntza ekonomikoen oinarriak eta deialdia, COVID-19ak 2021-2022an eragindako alarmaren ondoriozko aldi baterako laguntzen esparruan. [I-337 xedapena - 20 or.](#)

2022/04/21

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 1/2022 FORU ARAUA, otsailaren 16ko, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra onesten duena. [I-347 xedapena - 2 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/04/21

- **GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA.** 12/2022 Ebazpena, apirilaren 13koa, 2022/2023ko Aurrekontu Irekien partaidetzazko deliberazio prozesuaren protokoloa onesten duena. [2387 xedapena - 7 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/04/13

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/612 (EB) Erregelamendua, 2022ko apirilaren 6koa, Batasuneko komunikazio mugikorren sare publikoetako ibiltaritzari buruzkoa (bertsio bategina). [L 115/1 xedapena - 37 or.](#)

2022/04/20

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2022/643 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2022ko otsailaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 649/2012 (EB) Erregelamendua, plagiziden, industriako produktu kimikoen, kutsatzaile organiko iraunkorren eta merkurioaren zerrendei eta aduana-kodeen eguneratzeari dagokienez. [L 118/14 xedapena - 41 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO